

KORRIKA MUNDUA

ZEHARKATZEN

“IRAGANETIK ETORKIZUNERA MUNDU EUSKARAZ BATZEN”

Korrika 1980 hasi eta espero dugu bukatzeko data ez edukitzea, euskararen aldeko ekintza non edizio guztiak kontuan hartuta 1.500.000 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

Ariñe Fuentes & Maddi Azpiroz & Helene Gonzalez

NONDIK GATOZ?

AEK-ak 1980.urtean lehenengo korrika antolatu zuen, azaroaren 29-tik,



abenduaren 7ra, Oñatitik Bilbora. Lehen mezuaren egilea Rikardo Arregi izan zen, orainean Andoaingo pertsona esanguratsuenetako bat bihurtu da. Handik aurrera bi urtez behin antolatu izan du AEK-ak. Korrika egiten den urteetan abesti propio bat sortzen da, mezu bat, ibilbide bat...

ZER DA KORRIKA? ZER ALDARRIKATZEN DA?

Bi urtez behin euskararen alde egiten den egitasmo bat da Korrika. Zenbait egunez, milaka euskaldunek Euskal Herria zeharkatzen dute lasterka, goizez zein gauez, etenik gabe. Euskararen aldeko kontzientziak pizteko egiten da Korrika. Dena den, aldarrikapenak egiteko aukera ez ezik, AEK-ren diru iturri nagusietako bat ere bada; izan ere, kilometro baten ardura duten eragile, talde eta norbanakoek erosi egiten dute kilometro hori, AEK-rentzat dirua biltzeko.

NOIZ ETA NORK EGITEN DU KORRIKA?

Bi urtez behin egiten da korrika, hamaika eguneko ibilaldia egiten da herriak zeharkatuz, 2.300km-koa. Lehen korrika 1980. urtean egin zen, handik aurrera, bi urtez behin egiten dute. Urteak pasa hala korrikaren ibilbidea luzeagoa izaten da, orain dela hilabete bat, 2.792km-ko ibilbidea lortu zuten. Aurten, 23. korrika antolatu dute, “harro herri” abestiaren laguntzaz herrietatik pasa dira kantuz eta pozez. Aurtengo korrika martxoaren 14-ean hasi zen, Irunen, amaiera martxoak 24-ean izan zen, Baionan. Korrika Euskal Korrika Euskal Herrian antolatzen denez, gehienak, euskaldunak



izaten dira lekukoa eraman edo korrikan ateratzen direnak. Baino hainbat beste herritan ere korrika txiki bat prestatzen dute euskararen alde. Korrika antolatzeko hainbat konpainirekin antolatzen dute, milaka laguntzaile daude korrika aurrera eramateko.



ZEINEK ANTOLATZEN DU KORRIKA?

AEK antolatzen du korrika, 1980etik hasi ziren eta oraindik seguitzen dute, patrozinadore batzuk ere badituzte, adibidez, koparia, GoiEner, albaola, alet, bikote solar... Gainera euskara indartzearekin batera AEK-k lortzen duen dirua

euskararen aldeko eskolentzat (AEK) da.

ZENBAT BALIO DU KORRIKAKO KILOMETRO BATEK?

Korrikan parte hartzeak ez du kosturik. Lekukoa eramateko berriz bai, kilometroaren salneurria malgua izan ohi da. Honek esan nahi du lantegi batek erostean gehiago balio duela ikasle batenak baino. denen laguntzaz. Denak euskararen alde. Hizkuntza baten alde.



KORRIKA MUNDUAN ZEHAR

Korrika Euskal Herritik euskararen alde korri egitea da. Nahiz eta Euskal Herriko gauza bat izan, beste herrialde batzuetan ere egiten da, adibidez, Alemania, Argentina, Australia, Kanada, Txile, Eskozia, Espainia, Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Ingalterra, Irlanda, Hungaria, Italia, Mexiko eta Errusia.

MEZU IDAZLEAK

Hainbat pertsonak urteak igarota lekukoan mezua idatzi dizkigute, adibidez: Maialen Lujambio, Joseba Sarrionandia, Karmele Jaio, Amets Arzaillus, Rikardo Arregi (lehen bi urtetan), Xabier eta Miren Amuriza...



“GAUR EGUN NERABEEK KORRIKA FESTARAKO BAKARRIK ERABILTZEN DUTE, EZ EUSKARAREN ALDE”

Lekuko eramaileak izan dira Aita Larramendiko ikastolako ikasle batzuk

Marian Lekuona, Izaskun Jauregi eta Iñaki Eizmendi: Aita Larramendiko irakasleak



Zer sentitu zenuen lekukoa eman zizutenean?

Marian Lekuona: Emozio handi bat sentitu nuen, izugarrizko poza. Ez dakit nola azaldu, baina une magiko bat bizitu nuen.

Izaskun Jauregui: Gauza asko batera sentitu nituen, ala nola, poza, urduritasuna eta ohore handia.

Iñaki Eizmendi: Impresio berezi bat, askotan ikusita nuen ekitaldi hau, askotan

ikusita nun nola jendea pasatzen zuen lekukoa eskuz eskuz, ordun pentsatzen nuen nik ikusita urte ahietan nik egiten ari nintzela egoera oso berezian nengoen.

Nola bizitzen duzu ikastolako korrika? (ikastolako korrika txikia,...)

M.L.: Ilusioz, ilusioz beterik bizitzen dut, euskararen aldeko ekintza oso garrantzitsua iruditzen zaidalako eta behar beharrezkoa dela uste dudalako. Hobe izango litzateke ez bagenu horrelako ekitaldirik behar izango, horrek beste egoera batean geundela adieraziko zuelako.

Ni beti atera izandu naiz, nahiz eta ordu txikietan izan eta korrikan ez hain trebea izan.

I.J.: Ba pozik, poza handiz bizi dut asko gustatzen zaiten ekitaldi bat delako. Beti parte hartu izan dut eta iruditzen zait momentu polita eta emozionantea dela.

I.E.: Ondo, jendea oso animatua ikusi nuen, naiz eta oporren hasiera zen, jendea animatu egin zen.

Zer diferentzia ikusten duzu hasierako korrika ekitaldietatik honetara?

M.L.: Hasierakoetan, jende gutxiagok parte hartzen zuten, ezezagunagoak, bidea egin behar zen, eta hasierak beti dira gogorrak. Euskal Herri osoa 10 egunetan zeharkatzea eta dena borondatez, horrek ez dauka preziorik. Orduan

denborak erakutsi duena da, ba ekintza horrek jendea batu egiten duela berdin dela ze iritzi duten baina euskeraren alde daudela.

I.J.: Asko aldatu da, lehendabiziko korrikan ni oso gaztea nintzen eta gutxi batzuk bakarrik korri egin genun eta ez genekien oso ondo zer izango zen. Gaur egun, jende multzo ikaragarria mugitzen da baina ia seguro nago, korrikan parte hartzen duten askok euskararekiko sentipen eskasa dutela.

I.E.: Ba egia esan lehenengo korrika oroimenean daukat, baina oraingoarekin ikusten det islada handiagoa duela, presan bai telebistetan, ere jende gahiago mugitzen da,...

Lekukoa ematen dezun lehen aldia da?

M.L.: Bai, beti eman dit halako apurua, iruditzen zait gauza handia dela, izugarritzko ohorea dela, baina ez nintzen ausartzen korrika egiten ez naizelako iaioa.



I.J.: Ez, bigarren aldia, aurreko edizioan Tolosako ikastolako lekukoa eraman nuen, Tolosako ikastolako lehendabiziko gelako irakaslea naizelako.

I.Ñ.: Bai, lehenengo aldia, ez dut aukerarik izan eramateko.

Norbaiten gan pentsatu zenuen lekukoa edukitzean?

M.L.: Nere ahizpan, 10 bat urtez AEK-ko irakaslea izan zen, eta oso gaztetik hiltzan beraz askotan atzeatze nuen, behin baino gehiotan esan didate lekukoa emateko eta emozio berezi bat denez eta beldur pixka bat ematen zidan beraz momentuan asko gogoratu nintzan berataz eta eman zian halako alaitasuna, poza. Beari eskaini nion.

I.J.: Ikastolan, orokorrean ikastolan. Ikastola da buruan neukana.

I.E.: Bueno, oraindela urte batzuk nere seme batek heraman zuen, eta beataz goatu nintzen.

Noizbait pentsatu zenun lekukoa emango zenuela?

M.L.: Egia esanda behin baino gehiotan eskaini zidatzen baina ez nintzen ausartzen.

I.E.: Ez, hori ez da pentsatzen den gauza bat, hori sorpresaz etortzen da, proposatzen dizue eta oso pozik hartzen duzu albistea.

I.E.: Ez

Zein izan zen zure lehen impresioa edo pentsatu zenuena emango zenuela esatean?

M.L.: Emozioa, urduritasuna eta konpromezua ahalik eta ondoena egitekoa. Baita ere transmititzekoa nire ikasleei ohore bat dela, nik hala bizitzen dudala lekukoa ematea eta konpromezu bat euskararen aldekoa.

I.J.: Poza, sorpresa eta poz handia hartu nuen. Bueno, urte asko pasa ditut Andoaingo ikastolan eta pentsatu arazi zidan urte guzti hauetan egin dugun hortaz, lan hortaz.

I.E.: Urduritasun pixka bat bai sentitu nuen, tontakeri bat dirudi baina, dudak nitun lekukoka eroriko zitzaidan edo ez, aurrean dijoan kamarari ondo erakutsiko nionen,... Ekintza erreza da baina batzuetan sortzen dira zure kezkek, beldurra,...

Zergaitik uste duzu eman duzula zuk lekukoa eta ez beste irakasle batek?

M.L.: Ba, beida, oso erraza, aurten eman dugu ia ia ikastola bukatu degunok, ia ia jubilatzeaz gaudenok, horregatik eraman degu.

I.J.: Beste irakasle gehienak baino zaharragoak garelako eta urte asko ditugulako ia.

I.E.: Bueno, itsuraz gonbitea jaso genuen aurrejubilatzengeanen irakasleei aukera lekukoa hemateko eta komentatu ziatenean baiezkoa esan nuen dudarik gabe.


Euskerak zenbaterainoko importantzia du zure bizitzan?

M.L.: Nerean izugarria, badakit zeinbait jendek

esango duela bueno bueno, baina neretzako izugarria, nik sinisten dudalako. Pertsona bat bezala hizkuntza bat maite badezu nahi duzulako bere ona eta ordun neretzako euskeraz bizi nahi dut, sinisten dut hortan, herri baten sinisten dut, hizkuntzan sinisten dut, eta gu garen bezelakoa gara neurri batean ba hemen jaio garelko, hemengo hizkuntza daukagulako, guretzako aberastasun bat delako. Nik nere burua ez det ulertzen euskerarik gabe.

I.E.: Erabatekoa, euskaraz bizi naiz eta beste hizkuntzetan zailtasunik ditut. Euskaraz bizi naiz, euskaraz pentsatzen dut, euskeraz hitz egiten dut, euskera irakurtzen dut, euskeran lan egiten dut,... Euskeraz bizi naiz!

I.E.: Neretzat oso handia, nere ama hizkuntza da eta gainera arremanetarako nere lehen hizkuntza da.



Noiztik hartzen duzu parte korrikatikan?

M.L.: Hasieratik, urte asko ditut. Esan dizuedan bezala, hasieran Andoainen jende oso gutxi zegoen baina pixkanaka pixkanaka joan da ikusten euskararen alde dagoen jendetza. Badagola ezerean truke euskararen alde korri egiten duten jendea, zeren askotan gizarte honetan neurtzen dugu nik ematen dizut hau baina zuk niri ze ematen diazu, nik hau ematen dizut baina zuk neri ze ordainduko didazu. Hor geunden guztiak txikik eta haundik joan ginen euskerarengatik ez diru baten truke ezta ohore baten truke. Hori da magia.

I.J.: Nere ustez lehendabiziko aldiz nik izango nituen 18 bat urte edo horrela, beraz, urte asko daramatzat, 40 baino gehiago.

I.E.: Bueno, urte batzuetan parte hartu izan det, bai andoainen eta bai beste herri batzuetan, baina ez dut parte hartu ekintza guztitan baina bai egon naiz urtero informatuta

Nola ikusten duzu korrikaren bilakaera?

M.L.: Nik, oso ona. Baina datozen belaunaldiei transmititu egin behar

diegu guk daukagun maitasun hori euskararekiko, euskal kulturarekiko, gure herriarekiko. Gustatuko litzaidake beharrik ez izatea, horrek esango luke euskarak ez duela arriskurik, ondo dagoela osasunez eta esparru guztitan dagoela, baina ez da gure kasua. Espero dut korrika asko eta jendetsuak izatea, beti helburuak errespetatuz.

I.J.: Hasierako urteetan jende gutxik parte hartzen zuten, baino parte hartzen zituzten horiek oso euskalduna ziren, euskera oso bihotzean zeramaten. Egia esan, gaur egun, jende askok parte hartzen dute korrikan. Lehen baino gehiagok nere ustez, baino batzuk posea soilik izaten dute, festa bakarrik ospatzen dute, ez du beste esanahirik.

I.E.: Bueno ikusten detena da inportantzia handia

hartu duela, baina gertatzen dena da beste pauso bat heman beharra dagoela, jende guzti hori ez duena euskeraz egiten, esfortzu gehiago egin dezala euskera ikasteko.

